



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

ZEHAPEN-ESPEDIENTEA EZ HASTEKO ETA ARTXIBATZEKO EBAZPENA

LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUA

LEA 619-SAN-2022

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva, kontseilukidea

Enara Venturini Álvarez, kontseilukidea

Ainara Herce San Martín, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2023ko apirilaren 27an goian adierazitako parte hartzearekin egindako bilkuran, honako Ebazpen hau eman du 619-SAN-2022 zenbakidun «Gozokiak» espedientearekin lotuta.



Laburpena:

I. AURREKARIAK.....	3
II. ENPRESAK.....	6
III. ERAGINDAKO MERKATUA.....	6
IV. ZUZENBIDEKO OINARRIAK.....	8
1. Aztertutako jokabideak.....	8
1.1. Kolusiozko jokabideak.....	8
1.2. Nagusitasunezko posizioaren abusua.....	10
1.3. Lehia askea egintza desleialen bidez faltsutzea.....	11
2. Ebazpena emateko eskumena duen organoa.....	11
V. EBAZTEN DU:.....	12



I. AURREKARIAK

1. 2022ko urriaren 18an, Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) interesdun batek bidalitako idazki bat jaso zuen kontsultetarako eta komunikazioetarako kanalaren bitartez. XXXX andrearen abokatua zela adierazi eta honako hau azaldu zuen interesdunak:

«Gozoki denda txiki bat ireki berri duen Zarauzko bezero bat dut. Bada, inguruko banatzaile nagusiek denda produktuz hornitzeari uko egiten diote, bertatik gertu antzeko beste negozio bat dagoela eta aspaldiko bezeroa dutenez kalterik egin nahi ez diotela argudiatuta. Gure iritzian jokabide irregularra da eta zuzendu egin beharko litzateke, gertatzen ari dena lehia askearen aurkako eraso eta nagusitasunezko posizioaren abusu argia baita».

2. 2022ko azaroaren 14an, informazio-eskaera bat egin zitzaion alderdi interesdunari, honako zehaztapen hauek egitea eskatuz:

- Nor den ordezkatzan duen eragile ekonomikoa.
- Nork uko egin dion ordezkatzan duen denda gozokiz hornitzeari.
- Nor den ordezkatzan duen dendaren lehiakidea den eragile ekonomikoa.
- Banatzaileek denda hornitzeari uko egin diotela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea.
- Gozoki dendan negozioaren funtzionamenduari buruzko informazio deskribatzailea aurkeztea: hornikuntza-sistema, merkatuan jarduten duten banatzaileak, prezioak, lehiakide nagusiak.

3. 2022ko abenduaren 19an, informazio-eskaerari erantzuteko idazkia jaso zuen LEAk. Bertan, interesdunak, ordezkatzan duen eragile ekonomikoa hornitzeari ustez betoa jarri dioten enpresa banatzaileen zerrenda aurkeztu zuen (ROCARSA COMERCIALIZACIONES SA, GONVADOR SL, DULCES OSCAR SL, INDUSTRIAS MARJO SL eta GRECAR SLU), eta, jarraian, honako hau gaineratu zuen:

«Hornitzaile horiek dira gure inguruan lan egiten duten guztiak, eta ados jarri dira ordezkatzan dudan negozioa ez hornitzeko, dendaren jarduera bera kinka larrian utziz».

Banatzaileek denda hornitzeari uko egin diotela egiaztatzeko, honako dokumentazioa aurkeztu zuen:

- “Chuches Oscar” bezala identifikatutako pertsona batekin Whatsapp bidez trukaturako mezuen kopiak.
- Salatzailerearen abokatuak mezu elektronikoaren bidez lau banatzaileari egindako errekerimendua, besteak beste, hartzaileei ohartaraziz LEAk auziaren gaineko «*espedientea ireki*» duela, eta, denda hornitzeari uko egiten jarraitu eta auzia era adiskidetsuan konpondu ezean, «*dagozkion ekintzak abiaraziko*» dituela. Honako helbide elektroniko hauetara bidali zuen errekerimendua: xxxx,xxxxx,xxxx eta xxxx@gmail.com
- ROCARSAk honako erantzun hau eman zion jasotako mezu elektronikoari: «*Tamalez ez ziren zure bezeroarekin akordio batera iristeko beharrezko baldintzak eman, asko baitira hornitzailearen eta bezeroaren arteko akordio bat zaildu eta eragotz dezaketen faktoreak: prezioak, ordaintzeko modua, zerbitzuak, beste zerbitzu batzuekiko bateragarritasuna, faktore estrategikoak, bideragarritasuna... Are, aldean arteko kidetasun eta konfiantza ezarekin lotutako*



faktoreak ere izan daitezke tartean». Mezuan honakoa ere gaineratzen da: «Gozokien banaketako Espainiako merkatua lehia perfektuaren adibide argia eta dokumentatua da. Izan ere, Espainian gurea bezalako 500 banaketa-enpresa baino gehiago daude, eta zure bezeroak aukera du edozeinekin harremanetan jartzeko eta gure enpresak merkaturatzen dituen produktuak zuzenean erosteko akordio bat adosten saiatzeko. Azken batean, neurri handi batean guztiok produktu-gama berberak merkaturatzen ditugu, are, askotan fabrikatzaile berberen erreferentziak merkaturatzen ditugu».

4. 2022ko abenduaren 27an, DULCES OSCAR SL enpresak aurkeztutako idazki bat jaso genuen infocompetencia@avdc.eus helbide elektronikoa. Idazki horren bidez, honako kontsulta hau egin zuen enpresak:

Zuengana zuzentzen naiz eskaera egiten digun edozein bezerori salgaiak zerbitzatzeko betebeharra dugun jakiteko.

Halaber, besteak beste, DULCES OSCAR SL enpresak honako informazio hau ere eman zuen:

BUNKER GOXOKI dendako arduraduna ez da inoiz DULCES OSCAR enpresako zuzendaritzarekin harremanetan jarri. Antza, arduradunaren senarra izan zen Zarautzen eta inguruko herrietan lan egiten duen komertzial batekin hitz egin zuena. Aldiz, komertzial batekin hitz egin ondoren eskari bat egiteko benetako interesa badago, logikoena enpresari deitzea dela uste dugu, eta hori ez zen inolaz ere gertatu.

Are, aipatu gizonak ahots-audio batean adierazi zigun bere nahia ez zela guri erostea, baizik eta FIESTARI erosi nahi zizkiola produktuak. (...) Egoera desatseginak saihesteko asmoz, FIESTAREkin hitz egin genuen, eta, jarraian, eskatutako produktuak zerbitzatu zitzaizkion dendari, zehazki produktuak merkaturatzen dituen inguruko beste banatzaile baten bidez. Ordutik auzia konponduta zegoela uste genuen, izan ere, egoera hau guztia sortu duen idazkia aurkeztu arte, aipatu gizona gure enpresako produktuak merkaturatzeko inolako interesik agertu gabea zen. (...) Ez dakigu beste batzuek zer arrazoi izango dituzten dendari salgaiak ez zerbitzatzeko, eta, jakina, ez da inolaz ere gure kontua. Gure kasuan, baina, eskatutako produktuak Irungo biltegi baten bidez zerbitzatu zitzaizkion. Biltegi horrek gure produktu berak banatzen ditu, eta, beraz, gure aldetik behintzat, ez zaio inolako kalterik eragin. (...) gure kasuan, ez digute inolako eskaerarik egin.

DULCES OSCAR SL enpresak LEArri mezu hori bidali baldin bazion, alde zuzenetik salatzailearen abokatuak, beste hiru banatzaile bezala, bere bezeroaren denda hornitzeko eskatuz errekerimendu bat bidali ziolako izan zen. Idazki horretan, DULCES OSCAR enpresari jakinarazi zitzaion LEAk auziaren gaineko «*expediente*a ireki» zuela.

Era berean, DULCES OSCAR SL enpresak fakturen laburpen bat ere erantsi zuen LEArri bidalitako mezuan, salatzaileak aurretik izan zuen negozio bat produktuz hornitzez zutela egiaztatzeko; enpresak gaineratu zuenez, salatzailea atzeratu egin ohi zen jasotako produktuak ordaintzeko orduan.

5. 2023ko urtarrilaren 9an, LEAko Ikerketa Zuzendaritzak informazio erreserbatu bat abiatu zuen, aurretiaz zehazteko ba ote zen zirkunstantziarik zehapen-espedita bati



hasiera ematea justifikatzen zuenik Lehiaren Defentsarako uztailaren 3ko 15/2007 Legea urratzeagatik.

6. Informazio erreserbatua izapidetzeko beharrezkoa zela iritzita, 2023ko martxoaren 2an, LEAko Ikerketa Zuzendaritzak informazio-errekerimendu bana bidali zien salatzaileak identifikatutako enpresei, Lehia Defendatzeko Legearen 39. artikulua betez. Honako informazio hau eskatu zitzaizen zehazki:

- a) Adieraz zezatela ea jaso duten produktuen hornidura-eskaririk XXXX andrearen aldetik, Zarauzko (Gipuzkoa) BUNKER GOXOKI dendako arduraduna, bai zuzenean bai ordezkarien bitartez.*
- b) Erantzuna baiezkoa bada, zehazteko XXXX andreak edo bere ordezkariak zer produktu hornitzeko eskatu zuten.*
- c) BUNKER GOXOKI denda eskatutako produktuekin hornitzen duten edo ez, eta, hala ez bada, arrazoiak zeintzuk diren.*
- d) Auziari buruz eman nahi duten beste edozein informazio.*

7. 2023ko martxoaren 7an, ROCARSA COMERCIALIZACIONES SAK informazio-errekerimenduari erantzun zion, azalduz BUNKER GOXOKI denda harremanetan jarri zela enpresarekin banatzen dituzten produktuei buruzko informazioa eskatzeko, baina ez zutela inoiz dendaren aldetik eskari irmorik jaso, aldez aurretik jakinarazi ziotelako ezingo zutela produktuz hornitu. ROCARSA COMERCIALIZACIONES SAK argudiatutakoaren arabera, arrazoi komertzialak eta logistikoak dituzte ezezkoa emateko, adierazi dutenez ez baitute ez baliabide pertsonal ez material nahikorik bezero gehiagori arreta emateko, eta, ondorioz, ez baitzaie errentagarria bezero kopurua handitzea. Hori dela eta, salatzaileari gomendatu zioten Zarautz inguruko beren zuzeneko lehiakideekin harremanetan jar zedila denda hornitzeko. Gainera, jakinarazi zioten produktu berdinak hornitzen dituzten ehunka banatzaile gehiago ere badaudela, eta Internet bidez beraiekin harremanetan jartzeko aukera zuela.

8. 2023ko martxoaren 8an, GRECAR SLUK informazio-errekerimenduari erantzun zion, esanez XXXX andrearen izena ez zegoela enpresaren datu-basean jasota eta pertsona horrek ez zuela inolako alta-eskaerarik bete. Hala eta guztiz ere, gaineratu zuten, behin XXXX andreak beraiekin lan egiteko interesa zuela jakinda, XXXX andrearekin harremanetan jarriko ziren harreman komertzialak ezartzeko.

9. 2023ko martxoaren 8an, INDUSTRIAS MARJO SLUK informazio-errekerimenduari erantzun zion, azalduz ez XXXX andreak ez BUNKER GOXOKI dendako beste inork ez zuela negozioa produktuz hornitzeko eskaerarik egin; antza, produktuak erosteko asmoa adierazteko hainbat telefono dei baino ez ziren izan, baina ondoren ez zen elkarren arteko bestelako inolako harremanik izan.

10. 2023ko apirilaren 12an, Ikerketa Zuzendaritzak zehapen-espediterik ez hasteko eta salaketa artxibatze proposamena egin zuen.



II. ENPRESAK

- 11. BUNKER GOXOKI** gozokiak saltzen dituen establezimendu bat da, Zarauzko (Gipuzkoa) Geltoki kaleko 5. zenbakiko ezkerreko etxabea kokatuta dagoena eta XXXX andrea duena arduradun.
- 12. DULCES OSCAR SL** Hernaniko (Gipuzkoa) Zubiondo industrialdeko B42 nabea dagoen enpresa bat da, B20872073 identifikazio fiskaleko kodea duena. Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalean jasotako enpresaren jardura azukre, txokolate eta gozotegietako produktuen handizkako merkataritza da.
- 13. ROCARSA COMERCIALIZACIONES SL** Villamediana de Ireguako (Errioxa) Puente Madre industrialdean dagoen enpresa bat da, B26443192 identifikazio fiskaleko kodea duena. Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalean jasotako enpresaren jardura azukre, txokolate eta gozotegietako produktuen handizkako merkataritza da.
- 14. GRECAR SLU** Oiartzungo (Gipuzkoa) Lanbarren industrialdeko 1 eta 3 arteko nabeetan dagoen enpresa bat da, B20046066 identifikazio fiskaleko kodea duena. Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalean jasotako enpresaren jardura azukre, txokolate eta gozotegietako produktuen handizkako merkataritza da.
- 15. INDUSTRIAS MARJO SL** Zaragozako PLA-ZA plataforma logistikoko Turiaso kaleko 22. zenbakian dagoen enpresa bat da, B50035997 identifikazio fiskaleko kodea duena. Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalean jasotako enpresaren jardura azukre, txokolate eta gozotegietako produktuen handizkako merkataritza da.
- 16. GONVADOR SL** Zamudioko (Bizkaia) Torrelarragoiti industrialdeko 5B partzelan dagoen enpresa bat da, B48066419 identifikazio fiskaleko kodea duena. Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalean jasotako enpresaren jardura azukre, txokolate eta gozotegietako produktuen handizkako merkataritza da.

III. ERAGINDAKO MERKATUA

- 17.** Eragindako merkatua gozoki dendetako produktuen handizkako banaketarena da.
- 18.** Aurreko ondorioetarako, honako produktuak identifikatzen dira “gozoki” gisa: tamaina txikiko elikagaiak, mantenurako baino ahoa gozatzeko balio dutenak, eta industrialki egiten direnak azukrea oinarri hartuta, nahiz eta osagai, gehigarri, koloratzaile, zaporetzaile edo emulSIONatzaile barietatea izugarri zabala den¹.

¹ Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren txostena, N-309 CADBURY SCHWEPPE/PFIZER. Hemen eskura daiteke: <https://www.cnmc.es/sites/default/files/16054.pdf>



Azterketa sakonetan sartzeko asmorik izan gabe ere, produktu ugari bereiz daitezke gozokien artean, kategoria edo segmentu hauen arabera multzokatu daitezkeenak:

(a) *Karameluak: gogorak (klasikoak, baltsamikoak, beteak eta makilatxoak), bigunak (toffeak eta toffeak ez direnak), konprimituak, gel gozoak (erregaliza, okertuak, eta abar), gominolak eta malba-gozokiak (marshmallows).*

(b) *Konfiteak: txokolate-zatitxoak, azukre-almendrak, eta abar.*

(c) *Txikleak: mastekagarri bilduak, puzgarriak, azukrerik gabe ontziratutak, zatitxoak, bolak, eta abar.*

(d) *Gozotegietako beste produktu batzuk: frutarekin egindako gozokiak, Sidral eferbeszenteak, gozoki likidoak, eta abar.*

Produktu horietako gehien-gehienak, lortzen diren moduaren eta duten osaeraren arabera definitzen dira legalki, zehazki, indarrean den martxoaren 11ko 348/2011 Errege Dekretuan, karamelu, txikle, konfite eta gozokien kalitate-araua onartzen duena².

19. Estatuan, 2021ean, gozokien merkatuko salmenten nolabaiteko susperraldia izan zen ekonomiaren bizkortzeari esker, nahiz eta merkatuak pandemia aurreko zifren oso azpitik jarraitu zuen oraindik ere. Hala, ekitaldi itxierako behin-behineko datuen arabera, % 5 inguruko hazkundera eta 500 milioi euroko merkatu-balioa espero zen, hau da, 2019an baino % 17 gutxiago.³

20. Gozokien merkatuaren enpresa-egituraren ezaugarri nagusia tamaina txiki eta ertaineko enpresak gehiengoa direla da, gehien-gehienak, gainera, enpresa familiarrak dira. Hala ere, merkatuaren lehen postuetan multinazional handien filialak daude, salmenten zati handi bat berenganatzen dutenak. Horren erakusle, jardueraren kontzentrazio-maila handia ematen da sektorean, operadore nagusien mesedetan. Bost operadore nagusiek merkatuko balio osoaren % 45 berenganatu zuten elkarrekin 2020an, eta, hamar operadore nagusiak kontuan hartuta, ehuneko hori % 64koa izan zen.

21. Fabrikatzaileek, neurri handi batean, bulkadazko erosketen kanalaren bidez saltzen dituzte beren produktuak, hau da, kioskoetan, janari denda txikietan eta *vending* makinetan⁴. Bada, espediente honetan bulkadazko erosketen kanalaren jokabidea aztertu da, bai eta banaketa handizkari espezializatuen bidez egiten dela egiaztatu ere.

² Testu bateratua hemen eskura daiteke: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2011-5394>

³https://www.foodretail.es/food/golosinas-facturacion-pandemia-observatorio-dbk_0_1630336960.html

⁴ NielsenQ aholkularitza-enpresak honako saltoki hauek sartzen ditu bulkadazko erosketen kanalean: kioskoak, zerbitzuguneak eta 300 metro koadro baino gutxiagoko elikadura-denda tradizionalak eta denda independenteak.



Handizkako banaketa-merkatuaren ezaugarria da eskualde eta estatu mailan banatzaile kopuru handia dagoela. *Sweet Press* sektoreko aldizkari espezializatuaren arabera, 2021ean 459 enpresa zeuden bulkadazko erosketen kanaleko banaketan espezializatuta, horietatik 18 EAEn⁵.

Horrez gain, Espainian zenbait erosketa-zentral⁶ ere badaude, bulkadazko erosketen kanaleko banatzaile nagusiak biltzen dituztenak.

IV. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Aztertutako jokabideak

22. Lehiaren Euskal Kontseiluak espediente honen xede den salaketa baloratu du, abiapuntu gisa Ikerketa Zuzendaritzak auzia artxibatzeke proposamenean jasotako gertaerak eta espedienteen jasotako dokumentazioa hartuta. Salatzaileak Zarautzen eta inguruetan lan egiten duten gozokien handizkako zenbait banatzailek udalerrri horretan duen denda produktuz hornitzeari uko egiten diotela salatu du; are, banatzaileen arteko akordio bati egozten dio erabakia, eta nagusitasunezko posizioaren abusutzat du gertatzen ari dena.

23. Behin salaketan jakinarazitako jokabideak aztertuta, Ikerketa Zuzendaritzak abian jarri zituen azaldutako gertakarien zehaztasuna egiaztatzeke tresnak, bai eta Lehia Defendatzeko Legearen arau-hausterik izan ote zitekeen ere. Horretarako, informazio erreserbatu bat jarri zen martxan, eta zenbait informazio-errekerimendu ere egin ziren, zehapen-espediente bat hastea justifikatzen zuten beharrezko elementuak lortzea helburu hartuta, betiere, noski, egokia balitz.

24. Bada, egindako jarduketan ondoren, ondoriozta daiteke ez dela ez froga-elementurik, ez ebidentziarik, ezta zantzurik ere lehia mugatzeko jokabideak izan direnik esateko, eta, beraz, zehapen-espedientea irekitzea justifikatzeko.

Jarraian, salatutako gertakariak aztertzen dira, bai eta Lehia Defendatzeko Legean tipifikatutako jokabideekin izan dezaketen lotura ere.

1.1. Kolusiozko jokabideak

25. Lehiaren Defentsarako Legearen 1.1 artikuluari jarraikiz, debekatuta dago taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua ondorengo bada edo izan badaiteke: merkatu

⁵ <https://www.sweetpress.com/noticias/distribucion-impulso-el-sector-hace-frente-a-los-desafios-mas-unido-que-antes>

⁶ NUEVA UNIÓN, CECOSA, UNICOM, LEKKERLAND, ADYMA.



nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea; bereziki ondorengo akordio edo erabaki motak egongo dira debekatuta:

- a) Salneurriak edo beste merkataritza- edo zerbitzu-baldintza batzuk zuzenean edo zeharka finkatzea.*
- b) Ekoizpena, banaketa, garapen teknikoa edo inbertsioak mugatzea edo kontrolatzea. c) Merkatua edo hornikuntza-iturriak banatzea.*
- d) Merkataritza- edo zerbitzu-harremanetan, baldintza ezberdinak ezartzea baliokideak diren prestazioentzat, eta horrek lehiakide batzuei desabantailak eragitea beste batzuen aurrean.*
- e) Kontratuak hitzartu ahal izateko beste prestazio osagarri batzuk eskaintzeko baldintza jartzea, baldin eta prestazio horien ezaugarriengatik edo merkataritzako ohiturengatik hori eskatzeak ez badu zer ikusirik kontratuen helburuarekin.*

26. Lehiaren Defentsarako Legearen 1. artikulua aplikazioak, horrenbestez, eragile ekonomiko ezberdinen arteko borondate-kontzertu bat izatea eskatzen du. Horregatik, hain zuzen, aztertu behar da salatutako hornidura-ukapena lehiakideen arteko akordio baten ondorioa den edo ez.

27. Bada, ez salaketatik bertatik ez LEAren Ikerketa Zuzendaritzak egindako ikerketatik ezin da ondorioztatu BUNKER GOXOKI dendak jasandako hornidura-falta inguruko banatzaileen arteko lehiaren aurkako akordio baten ondorio denik, ez baita hori frogatzeko inolako zantzurik aurkeztu.

28. DULCES OSCAR SL enpresaren kasuan, banatzaileak adierazi du ez diola dendari inoiz zuzenean inolako produkturik saldu, dendarekin izandako harreman bakarra komertzial baten bidez egin zela, eta denda ez zela inoiz enpresarekin harremanetan jarri eskaerarik egiteko; are, dendak nahi zituen produktuak ez dituztela merkaturatzen azaldu du, eta, ondorioz, ez zietela inoiz eskaerarik egin. Gaineratu dutenez, BUNKER GOXOKI dendak beste banatzaile baten bidez lortu zituen produktuak, eta, beraz, ez zekiten inolako arazorik zegoenik.

29. ROCARSA COMERCIALIZACIONES SL enpresak onartu egin du BUNKER GOXOKI denda produktuz hornitzeari uko egin izana. Hori bai, azaldu duenez, enpresak indibidualki hartutako erabakia izan da, merkatua arautzen duen enpresa-askatasunaren esparruan. Erabakia elementu komertzialetan eta logistikoetan oinarrituta justifikatu du, denda gehiago produktuz hornitzea errentagarria ez zaiola argudiatuz.

30. GRECAR SLUren eta MAJOR SLren kasuan, salatzaileak ez du egiaztatu enpresa horiei inolako eskaerarik egin izana.

GRECAR SLUren kasuan, gainera, bezero izateko aurkeztu beharreko dokumentazioaren berri eman zion enpresak, baina BUNKER GOXOKI ez zuen inoiz



aurkeztu. Hala ere, GRECAR SLUK adierazi du dendarekin kontaktuan jarriko direla harreman komertzialak abiatzeko.

INDUSTRIAS MAJOR SL enpresak adierazi du informazioa eskatu zitzaiela telefono bidez, baina ondoren ez zutela inolako eskaerarik jaso.

31. Aurreko guztia aintzat hartu eta salatzaileak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, ez da ikusten enpresa banatzaileen arteko akordio baten inolako zantzurik merkatuan lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzeko.

1.2. Nagusitasunezko posizioaren abusua

32. Lehiaren Defentsarako Legearen 2. artikulua debekatu egiten du merkatu nazional osoan edo zati batean nagusitasun posizioan dagoen enpresa ororen abusuzko ustiapena. Zehazki, honako hau jotzen da abusuzko ustiapentzat:

- a) Zuzenean edo zeharka, bidezkoak ez diren salneurriak edo beste merkataritza- edo zerbitzu-baldintza batzuk inposatzea.*
- b) Produkzioa, banaketa edo garapen teknikoa mugatzea, enpresei edo kontsumitzaileei zurrizkerik ez dagoen kaltea eraginda.*
- c) Produktuak erosteko edo zerbitzuak eskaintzeko eskariari ezetz esatea, horretarako arrazoirik eman gabe.*
- d) Merkataritza- edo zerbitzu-harremanetan, baldintza ezberdinak ezartzea baliokideak diren prestazioetarako eta, horren ondorioz, lehiakide batzuk desabantaila-egoeran jartzea beste batzuekin alderatuta.*
- e) Kontratuak hitzartu ahal izateko beste prestazio osagarri batzuk eskaintzeko baldintza jartzea, baldin eta prestazio horien ezaugarriengatik edo merkataritzako ohiturengatik hori eskatzeak ez badu loturarik kontratuen helburuarekin.*

33. Nagusitasunezko posizioa honela definitu da: enpresa batek duen botere ekonomikoko egoera, enpresa horri aukera ematen diona erreferentziako merkatuan benetako lehia egon dadin eragozteko; horrek aukera ematen dio bere lehiakide, bezero, eta, azkenik, kontsumitzaileekiko independentzia-maila nabarmenarekin jokatzeko.

Enpresa bat nagusitasunezko posizioan egotea ez da berez ilegala, eta, hala, posizio gailenean den enpresak eskubidea du bere merezimenduetan oinarrituta lehiatzeko. Aldiz, enpresa horrek erantzukizun berezia du bere jokabidearekin merkatuan benetako eta faltsutu gabeko lehia izatea ez galarazteko.

34. Salatutako enpresetatik edozeinek izan dezakeen nagusitasunezko egoerari dagokionez, gozokiak banatzeko merkatuan ematen den lehia-egoera aztertu behar da.



Bada, egiatzatu denez, aipatu merkatua atomizatuta dago ondasunok hornitzen dituzten enpresen kopuru handiaren ondorioz, eta horrek adierazten du enpresotako bakar batek ere ez duela merkatu-kuota handirik, eta, beraz, ezin dutela beren lehiakideak edo bezeroak aintzat hartu gabe jardun. Izan ere, hainbeste banatzaile eta elkarren artean ordezkagarriak diren hainbeste produktu dituen merkatua denez, hornidura behar duen establezimendu batek edozein banatzailearengana jo dezake, eta, beraz, banatzaileek ez dute independentzia nahikorik lehiakideen edo bezeroen balizko erreakzioak kontuan hartu gabe jardun ahal izateko.

Horri guztiari gehitu behar zaio sartzeko inolako oztoporik ez duen merkatua dela, eta horrek lehiakide berriak sartzea eta lehia baldintza egokietan garatzea ahalbidetzen duela.

35. Azaldutakoagatik, ezin da baieztatu salatutako enpresek inolako nagusitasunezko posizioa dutenik gozokiak banatzeko merkatuan, eta, beraz, ez da posible Lehiaren Defentsarako Legearen 2. artikulua aplikatzea.

1.3. Lehia askea egintza desleialen bidez faltsutzea

36. Azkenik, Lehiaren Defentsarako Legearen 3. artikulua debekatu egiten ditu lehia askea faltsutzeagatik interes publikoari kalte egiten dioten lehia desleialeko egintzak. Interes publikoari kalte eginez gero, lehia faltsutzeak ondorio nabaria dauka eragindako merkatuan.

37. Horrenbestez, hainbat baldintza betetzea eskatzen da: (i) lehia desleialeko egintza bat egotea, (ii) egintza desleial horrek lehia askea faltsutzea, eta (iii) egintza desleial horrek interes publikoari kalte egitea.

38. Bada, aztergai dugun kasuan, aztertutako jokabidea ez da sartzen urtarrilaren 10eko Lehia desleialaren 3/1991 Legean aurreikusitako kasu batean ere. Era berean, ez dago ondorioztatzerik salatutako jokabideak interes publikoari kalte egitea posible denik, ezta lehia askea faltsutzeko modukoa denik ere.

39. Hori dela eta, ez da bidezkoa salatutako jokabideari Lehiaren Defentsarako Legearen 3. artikulua aplikatzea.

2. Ebazpena emateko eskumena duen organoa

40. Lehiaren Defentsarako Legearen 49.3 artikuluan xedatu denez, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalako Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, lege horren 1., 2. eta 3. artikuluek debekaturiko jokabideak ustez egin izanaren ondoriozko prozedurak ez hastea erabaki dezake, baita horien jarduerak artxibatzea ere, baldin eta legea haustearen inguruko zantzurik ez dagoela irizten badio.



41. Era berean, otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuaren bidez onartutako Lehiaren Defentsarako Araubidearen 27. artikulua ezartzen duenez, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalako Kontseiluak prozedura ez hastea eta jarduketak 15/2007 Legearen 49.3 artikuluan ezarritako baldintzetan artxibatzea erabaki ahal izateko, Lehia Zuzendaritzak jasotako salaketa, aurretiaz egindako jarduketak eta, hala badagokio, artxibatzeko proposamena helaraziko dizkio.

42. Lehiaren Defentsarako Legearen zortzigarren xedapen gehigarriak honako hau dio:

«Lege honetan Lehiaren Batzorde Nazionalari [gaur egungo Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala] eta bere zuzendaritza-organoei egiten zaizkien aipamenak, hain zuzen ere eginkizun, administrazio-ahalmen eta prozedurei buruzkoak, autonomia-erkidegoetan arlo horretako eskumenak dituzten instrukzio- eta ebazpen-organoei ere egiten zaizkiela ulertuko da, aipamen horiek lege honen 13. artikuluan aurreikusitako eskumenen ingurukoak direnean».

43. Bestalde, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 10. artikulua ezartzen dituen Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunen artean, ezartzen du administrazioak bere kabuz hasitako jarduketak edo salaketak artxibatzea ebatzi behar duela, hala egin behar denean, zehapen-espeditente bihurtu baino lehen.

44. Aurrekoarekin bat eginez, eta egin duen txostenean oinarrituta, Ikerketa Zuzendaritzak zehapen-espeditenterik ez hasteko eta espeditentea artxibatzeko proposamena egin zuen 2023ko apirilaren 12an. Kontseilu honek Ikerketa Zuzendaritzaren aipatutako proposamena onartu du, ez baitago arau-hausteen zantzurik. Ondorioz, ezin da zehapen-espeditenterik hasi aipatutako 27. artikuluko bigarren atalarekin bat eginez.

Aipatutako lege-manuak eta orokorrean aplikatzekoak direnak ikusita, Lehiaren Euskal Kontseilu honek

V. EBAZTEN DU:

LEHENA: Zehapen-prozedurarik ez hastea eta egindako eta bideratutako jarduketak artxibatzea, Lehiaren Defentsarako uztailaren 3ko 15/2007 Legea urratu izanaren zantzurik egiaztatu ez delako.

BIGARRENA: Jakinaraz bekie ebazpen hau LEAren Ikerketa Zuzendaritzari, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalako Lehiaren Zuzendaritzari eta interesdun guztiei, eta adieraz bekie Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipin dezaketela EAeko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.